

## Bizikidetzarako araudia:

Gure eskolaren helburua kalitatezko hezkuntza eskaintzea eta elkarrekin bizi eta lana egitea izanik, ezinbestekoa da bizikidetzarako araudi hauek jarraitzea. Ikasle, irakasle eta langileen arteko harremana elkarrekiko errespetuan oinarrituko da. Araudi hau ikastetxe barruan eta eskolak antolatzen duen edozein ekintzetan bete behar da.

Batxilergoko bizikidetzarako araudia Euskal Autonomia eta Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan eta errespetuan oinarrituta dago.

1. Ikastetxean dauden pertsona guztiekin errespetuz jokatu dugu. Beraz, ikastetxean gauden pertsonen arteko komunikazioa eta jokabidea errespetuan oinarrituta egongo da.

2. **Ikastetxeko guneak txukun eta garbi mantenduko ditugu.** Instalazio eta ekipamendu ezberdinen erabilera egokia dela bermatuko da. Araudi bereziak dauden lekuetan araudiak errespetatuko dira.

3. **Gelan: Talde bakoitzak gela bat izango du eta gela horren ardura izango du. Gela horretan ikasteko giro atsegina eta aproposa dagoela ziurtatuko dugu, horretarako ondorengoak beteko ditugu:**

1. **Gelan ditugun jokabideak eta hitz egiteko moduak errespetuan oinarrituta egongo dira.**
2. **Gela garbi mantenduko dugu eta horretarako gelan ditugun zakarrontziak erabiliko ditugu.**
3. **Astean behin gela garbitu egingo da tutorearekin adostutako egun eta orduan. Hala ere, ikasle eta irakasle denok izango gara gelak garbi mantentzearen arduradunak. Beraz, astean zehar, gela ez badago garbi, behar izanaren arabera garbituko da.**
4. **Mahaiak eta aulkiak tutorearekin adostu bezala jarriko ditugu.**
5. **Gelako material, altzari eta instalazioak behar bezala erabiliko ditugu.**
6. **Irakaslearen mahaian dagoen ordenagailua irakasleak erabiltzeko da. Ikasleek portatilak izango dituzte erabilgai. Portatilak beti armairu barruan egongo dira konektatuta. Gogoratu ordenagailuak lanerako direla.**
7. **Gelatik azken irtetzen denak argiak amatatuko ditu eta atea itxiko du. Eguneko azken orduan leihoak ere itxiko dira.**

4. **Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Irakasleek asistentzia kontrolatuko dute egunero. Klasera etortzen ez den ikasleak, irakasle eta tutoreari justifikantea ekarriko dio ikasleak bueltatzen denetik aste batera.**

5. **Azterketa edo kontrolatara ez aurkeztea arazo larri bategatik onartuko da. Kasu hauetan, azterketa edo kontrol eguneko lehen orduan gurasoak tutoreari jakinarazi beharko dio telefonoz eta horrez gain, justifikante ofizial bat ekarri beharko du azterketa beste egun batean egiteko aukera izateko. Begiratu ez etortze araudia.**

6. **Puntualtasuna zaintzea ezinbestekoa da gelako orduak ondo aprobetxatzeko.**

7. **Klase orduetan mugikorrek erabiltzearen helburua ikasketan laguntzea izango da. Beraz irakasleak baimentzen duenean erabiliko ditugu.**

8. **Azterketak bakarkako lanak dira eta hauek egiteko ikasleak ezin izango du inolako kanpo laguntzarik izan.**

9. **Ikasleei takilak asigmatu zaizkie ikastetxean erabili behar duten materiala jasotzeko. Ikasle bakoitzaren ardura izango da takila zaintzea. Ekainean takilak hustu behar dira.**

10. **Dirua edo baliozko zenbat gauza hobe ez badira ikastetxera ekartzen. Eskolak ez du beregain hartuko zerbait lapurtu edo galduko balitz.**

11. Klase orduetan ezin izango da pasabidean egon.
12. Kartelak edo propaganda bakarrik dagokien lekuan jarriko dira.
13. Ikastetxean erabat debekatuta dago erretzea eta alkohola edatea.
14. Debekatuta dago Lea Artibai Ikastetxean edo ikastetxeak antolaturiko ekintzetan ateratako irudiak edozein ikasle, irakasle edo langileren irudia kaltetzeko erabiltzea eta baimen gabe irudi horiek sare sozialetara igotzea.
15. Ikasleen hezkuntzarekin lotura duten gaiak, hala nola, ikasketen inguruko informazioa, ikasgaien jarraipena, edo jokabide ez egokiak, gurasoekin bideratuko dira, salbuespenak salbu.
16. Bizikidetzaren araudi hau jarrera ez egokiarekin oztopatzen bada, neurri zuzentzaileak hartuko dira. Neurri hauek hezigarriak eta zuzendu beharreko jarrerarekin lotura izango dute.

**Bizikidetzaren oztopatzen dituzten jarrerak eta neurri zuzentzaileak.**

Ikastetxeak ikasteko eta elkarbizitzarako behar den eskolako giro ona bermatu behar du. Horregatik, Bizikidetzaren oztopatzen duten jarrerak ematen direnean, neurri zuzentzaileak hartuko ditu, beti ere hezigarriak izango dira eta zuzendu beharreko jarrerarekin lotura izango dute.

Bizikidetzaren oztopatzen duten jarrerak sortutako eraginaren arabera sailkatuko dira. Bi taldetan banatuko ditugu: Bizikidetzaren oztopatzen dituzten jarrerak eta Bizikidetzarako kalte larriak sortzen dituztenak

Bizikidetzarako kalte larriak ematen direnean, neurriak arduradunak hartuko ditu tutorearen laguntzarekin eta sortutako kaltearen arabera hartuko dira. Arduradunak ikaslearen jarraipen orrian jasoko du eta tutoreak eta arduradunak gurasoekin bilera bat egingo dute.

- Ikasleak barkamena eskatuko du eta eragindako kaltea erreparatuko du.
- Jarduera osagarrietan edo/eta eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osoarako edo zati baterako.
- Irakasgai bateko edo gehiagoko klasetara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin.
- Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak eragin handia egin badio eskola komunitateari, Batxilergoko arduradunak eta ikastetxeko zuzendariak, Artezkaritza Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikaslearen ikastetxe aldaketa eskatuko du. Ahal bada, ikaslea eskolaturik dagoen ikastetxe sare eta hizkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramanen da.
- Batxilergoko arduradunak guraso edo tutore legalari hartutako neurria jakinaraziko dio.

Kontuan izan, neurri zuzentzaileak hartzen direnean hauek ere kontuan izango ditugula:

• Aringarriak (atenuante)	• Larrigarriak (agrabante)
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errua onartzea, barka eskatzea eta kaltea konpontzea.</li> <li>• Errua onartzean, barka eskatzea eta arazoa konpontzeko irtenbideak ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrez erabaki izana.</li> <li>• Barkamena eskatzea nahi ez izatea.</li> <li>• Ikasturte berean behin baino gehiagotan izatea bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak.</li> <li>• Lehendik ezarritako neurri bat ez betetzea.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahita eginda ez izatea.</li> <li>• Modu espontaneoan barkamena eskatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten dieten jokaerak, bereziki, baldintza ezberdinetan daudenei.</li> <li>• Taldea hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak urratzera bultzatzea.</li> <li>• Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak nahita egitea.</li> <li>• Egindako kalteak bereziki esanguratsuak izatea.</li> <li>• Zuzendu beharreko jarrerak edozein gailu bitartez grabatzea edota ezagutaraztea.</li> <li>• Diskriminazioa dakarten ekintzak</li> </ul>
---	--

### Jarrera ez egokien zerrenda

Kontuan izan zerrenda honetan jasota ez dauden jarrera ez egokiak kasuan kasu hausnartuko direla, baita ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Berdin jokatuko dugu hemen jasotako jarrera ez egokiaren neurri zuzentzaileak ez badu arazoa konpontzen. Neurri zuzentzaile berria ipiniko da.

### Jarrera ez egokiak eta neurri zuzentzaileak

#### Puntualtasun falta

Ahozko ohartarazpena kasu puntuala bada. Errepikatzen bada irakasleak bere koadernoan 15 minutuko falta apuntatuko du eta ikasleari notifikatuko dio. Ikasle batek 15 minutuko 4 falta badauka, justifikatu gabeko ordu bat moduan kontatuko zaio eta zeharkako kompetentzietan puntu bat (10etik) kenduko zaio.

Ez bada zuzentzen: Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da eta hartu beharreko neurri zuzentzailea hartuko da.

#### Klaseak ematea eragozte

Ahozko ohartarazpena kasu puntuala bada. Ez bada zuzentzen eta klaseak ematen eragozten jarraitzen badu, 10 minutu kanporatua izango da eta gero gelara bueltatuko da. Justifikatu gabeko falta bezala jasoko da eta zeharkako kompetentzian puntu bat gutxiago izango du (10etik). Tutorearekin hitz egingo da eta ikaslearen jarraipen orrian jasoko da. Tutoreak gurasoekin hitz egingo du.

Ez bada zuzentzen: Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### Ikastetxeko edozein ekipamendu elektroniko, mekaniko, telefoniko edo informatikoei erabilera ez egokia ematea adibidez, kafe eta janari makina, ordenagailuak, igogailua.

Sortutako kaltearen arabera neurriak hartuko dira:

Sortutako kaltea txikia bada: ikasleak ahazko ohartarazpena jasoko du eta barkamena eskatuko du.

Errepikatzen bada edo sortutako kaltea handia bada: Ikasleak barkamena eskatuko du eta tutoreari eta Batxilergoko arduradunari notifikatuko zaio. Jarraipen orrian jasoko da eta ikaslearekin hitz egingo dute ikasleak eragindako kaltea erreparatzeko. Gurasoei ere jakinaraziko zaie. Kasuan kasu, bizikidetzarako kalte larri gisa jaso ahal izango da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

**Eskolako material, altzari edo instalazioak apurtzea edo era desegoki batean erabiltzea.**

Sortutako kaltearen arabera neurriak hartuko dira:

Sortutako kaltea txikia bada: ikasleak barkamena eskatuko du eta apurtutakoa konponduko du. Errepikatzen bada edo sortutako Kaltea handia bada: ikasleak barkamena eskatuko du, tutoreari eta Batxilergoko arduradunari abisatuko zaio, jarraipen orrian jasoko du eta ikaslearekin hitz egingo dute ikasleak apurtutakoa konpontzeko edo ordaintzeko. Gurasoei ere jakinaraziko zaie. Kasuan kasu, bizikidetzarako kalte larri gisa jaso ahal izango da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

**Gezurak esatea edo informazio faltsua ematea.**

Sortutako kaltea txikia bada: ikasleak barkamena eskatuko du eta sortutako kaltea konpondu edo bideratuko du.

Sortutako Kaltea handia bada edo errepikatzen bada: ikasleak barkamena eskatuko du, tutoreari eta Batxilergoko arduradunari abisatuko zaio, jarraipen orrian jasoko du eta ikaslearekin hitz egingo dute ikasleak sortutako kaltea konpontzeko edo bideratzeko. Gurasoei ere jakinaraziko zaie. Kasuan kasu, bizikidetzarako kalte larri gisa jaso ahal izango da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

**Buruko estalkiak erabiltzea eta arpegia estaltzea:**

Ahozko ohartarazpena kasu puntuala bada.

Ez bada zuzentzen: tutoreari abisatuko zaio eta jarraipen orrian jasoko da.

Kasuan kasu, Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da eta hartu beharreko neurri zuzentzailea hartuko da.

**Klase orduetan baimenik gabe mugikorrek edo beste edozein gailu erabiltzea.**

Lehenengoz gertatzen denean, mugikorra edo baimenik gabe erabili den gailua kenduko zaio eta irakasleak tutoreari emango dio. Tutoreak ikasleari azkeneko orduan bueltatuko dio. Ikaslearen jarraipen orrian jasoko da.

Bigarrenaz gertatzen bada: Mugikorra edo baimenik gabe erabili den gailua kenduko zaio eta irakasleak tutoreari emango dio. Mugikorra jasotzeko gurasoak edo tutore legalak etorri beharko dira.

Hirugarrenez gertatzen bada: Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

**Ikastetxeko edozein gune zikintzea**

Ikasleak edo ikasle taldeak zikindutakoa garbituko du.

Ez bada zuzentzen tutoreari edo Batxilergoko arduradunari komunikatu zaio eta jolasorduan geldituko dira gunea garbitzen. Gurasoei komunikatuko zaie eta ikasleen jarraipen orrian jasoko du tutoreak.

Ez bada zuzentzen: Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa jasoko da eta ekintza osagarrietan ezin izango dute parte hartu.

Gogoratu: Ikastetxea garbi mantentzea ezinbestekoa da eta ikasle eta irakasle guztiok gara ikastetxeko gune guztiak garbi mantentzeko arduradunak.

**Azterketetan mugikorra edo baimendu gabeko edozein gailu gainean izatea.**

Azterketa horretan zero kalifikazioa jasoko da. Irakasleak tutoreari jakinaraziko dio eta tutoreak guraso eta Batxilergoko arduradunari jakinaraziko die.

Errepikatzen bada: Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Lanak edo azterketak kopiazea.**

Azterketa edo lan horretan zero kalifikazioa jasoko du. Irakasleak tutoreari jakinaraziko dio eta tutoreak guraso eta Batxilergoko arduradunari jakinaraziko die.

Errepikatzen bada: **Ikasle batek bere jarrera ez badu zuzentzen eta beste lanen bat edo azterketaren bat kopiazea badu ( nahiz eta beste ikasgai batekoa izan) Bizikidetzaren aurkako jarrera larri gisa erregistratuko da** eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Beste edozein ikasle edo eskolako langilereko errespetu falta.**

Larritasunaren arabera neurri hauek hartuko dira:

Ez bada larria: Ikasleak barkamena eskatuko du eta eragindako kaltea erreparatuko du. Tutoreari jakinaraziko dio eta jarraipen orrian jasoko du.

Larria bada edo errepikatzen bada: Ikasleak barkamena eskatuko du. Tutore eta Batxilergoko arduradunari abisatu eta jarraipen orrian jasoko da. Ikaslearekin hitz egingo eragindako kaltea erreparatzeko. Gurasoei deitu eta gurasoekin bilera egingo da. Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Irakasle edota ikastetxeko langileek bere eginkizunen jardueran emandako aginduak ez betetzea, beti ere horrekin diziplina falta agertzen bada, edo eta irainak, mesprexuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.**

Hartu beharreko neurriak: Tutoreari eta Batxilergoko arduradunari jakinaraziko zaio, ikaslearen jarraipen orrian jasoko da eta ikaslearekin hitz egingo da ikasleak barkamena eskatzeko eta eragindako kaltea erreparatzeko. Gurasoekin bilera bat egingo da. Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Lapurretak**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Edozein eskolako dokumentu edo sinadura faltsifikatu**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen edozein eskolako dokumentu edo erregistro kaltetzea, truketzea edo aldatzea. Baita ere, dokumentu akademikoak ezkutatzea edo baimenik gabe ateratzea.**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Osasunerako edo osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitea edo egitera bultzatzea.**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Besteen ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, euren baimen gabe grabazio edo irudi baliabideak erabiliz.**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Ikastetxean edo eta ikastetxeak antolaturiko ekintzetan ateratako irudiak, eskolaren edozein ikasle, irakasle edo langileren irudia kaltetzeko erabiltzea edo eta sare sozialetara igotea.**

Bizikidetzarako kalte larri gisa jasoko da eta erabakitzen den neurri zuzentzailea ipiniko zaio.

### **Justifikatu gabeko ez etortzeak**

### **\*Ez etortzeen barne araudia**

201/2008 Dekretuaren arabera, klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Irakasleek asistentzia kontrolatuko dute egunero. Klasera etortzen ez den ikasleak, irakasle eta tutoreari justifikantea ekarriko dio ikaslea bueltatzen denetik **hiru egunera gehienez**. Azterketa edo kontroletara ez aurkezteak justifikante ofiziala ekartzea dakar.

Ez etortzeak ondorengo tratamendua izango du:

1. Tutorea, ikaslearen familiarekin harremanetan jarri beharko du lehenengo falta egunetik justifikatu gabeko orduen informazioa luzatzeko. Harreman honen helburua klasera ez joate horiek ez errepikatzea eta, ondorioz, ebaluazio azterketara aurkezteko eskubidea ez galtzea. Tutoreak Batxilergoko arduradunari egindako komunikazioaren berri emango dio.
2. Ebaluazioro, ebaluazio informeetan, tutoreak ebaluazio horretako asistentzia falta kopurua adieraziko du.
3. **Ikasle bat, 4 puntualtasun faltagatik ordu bateko falta badauka, edo kanporatua bada, falta hori justifikatu gabekotzat hartuko da eta justifikatu gabeko faltan araudiaren arabera tratatuko da.** Kasu hauetan gurasoei deituko diegu.
4. Aipatutako 201/2008 Dekretuaren arabera, 30. artikuluan adierazten den moduan, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak Ikastetxeko Bizikidetza oztokatzen dituzten jarrera moduan hartuko dira. Kanporaketak eta puntualtasun faltak (begiratu neurri zuzentzaileen araudia) **justifikatu gabeko faltak izango dira eta bakoitzeko zeharkako konpetentzian adostutako notan, puntu bat bajatuko da.**
5. Era berean, 201/2008 Dekretu berberaren arabera, 38. artikuluan adierazten den moduan, justifikatu gabeko klasera ez etortze ugari egiten duen ikasleak, ebaluazioko azterketara aurkezteko eskubidea galduko du. Justifikatu gabeko orduak ikasgaien asteko ordu kopuruen arabera zenbatuko dira. Honako prozedura hau ezartzen da:

a) Ikasle batek ezin izango du ikasgai baten ebaluazio azterketa egin, ikasgai horretan justifikatu gabeko gehienezko ordu kopurua honako hau bada.

Irakasgaien asteko ordu kopuruak	Justifikatu gabeko orduak	
	*Gurasoei Idatzizko komunikazioa	*Gurasoei idatzizko komunikazioa ebaluazioko azterketa egiteko aukera galdu duela jakinarazteko
4	5	8
3	4	6
2	3	5
1	2	4

\*Gurasoak eskolara etorri beharko dira idatzizko komunikazioak jasotzera.

b) Ikasle batek ikasgai bateko ebaluazio azterketa guztietara aurkezteko eskubidea galduko du eta zuzenean ohikora joango da, ikasgai horretan justifikatu gabeko gehienezko ordu kopurua honako hau bada.

Irakasgaien asteko ordu kopuruak	Justifikatu gabeko orduak	
	*Gurasoei Idatzizko komunikazioa	*Gurasoei idatzizko komunikazioa ebaluazioko azterketa guztietara aurkezteko aukera galdu duela jakinarazteko
4	10	12
3	8	10
2	6	8
1	4	6

\*Gurasoak eskolara etorri beharko dira idatzizko komunikazioak jasotzera.

c) Justifikatu gabeko orduak 80 tik gorakoak badira, ikaslea ezin izango da ikasgai guztietako ebaluazio azterketa guztietara aurkeztu. 70. Justifikatu gabeko faltara heltzen denean, gurasoei falten berri idatziz komunikatuko zaie. 80. Faltara heltzen denean gurasoei idatziz komunikatu zaie ikaslea ezin izango dela ebaluazio azterketa guztietara aurkeztu.

\*Gurasoak eskolara etorri beharko dira idatzizko komunikazioak jasotzera.

Batxilergoko ikasle bat adinez nagusikoa denean eta bere ikasketen arduradun adierazi denean, ondorengo araudi hau jarraituko du (Goi Mailako Heziketa Zikloetan jarraitzen den araudi berdina):

1-Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Irakasleak kalifikazioak jartzerakoan, eskolara asistentzia faltak izango ditu kontuan. Horrez gain, azterketak daudenean agiri ofiziala ekarri behar da azterketa beste egun batean egin ahal izateko.

2-Ikasgairen batean ez etortzea %20a (justifikatu zein justifikatu gabe) gainditzen badu, ikasleak ez du izango etengabeko ebaluaziorako eskubiderik. Ikasgai horiek kurtso amaierako ebaluaziora aurkeztuta ebaluatuko dira.